Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Ez dugu esango gure izanari bizkarra eman behar diogunik, baina ezin dugu onartu ere iraganak tradizioki ezin bilakatzea. Hori da EAJren mozioari darion kiratsa. Gauzak modu batera izan direlako beti horrela izan behar dute?. Akaso Sasietan EAJk beti agindu behar du gauzak ondo egiteko?. Arauen barruan eta gehiengo demokratikoz izendatutako lehendakaria, Beasaingoa izan behar duela non jartzen du?, eta zergatik izan behar zuen Beasaingoa eta EAJkoa, jakinik gainera Beasainen EAJk ardura hartzea espresuki uko egin diola?. Sasietaz hitz egiteko Beasaingo EAJren jarrera arduragabea, arriskutsua eta mehatxuzkoa dela esan beharrean gaude. Sasieta aipatzen da, baina ez da inondik ere hondakinen politika aipatu ere egiten. Ez da aipatzen birziklapen tasak nola egokitu behar ditugun Europatik datozkigun eskaeretara. Ahaztu egiten da aurki zaborteziak eta aroztegiak ez dutela lekurik izango hondakinak kudeatzeko garaian. Aipatzen da birziklapenaren bidean lan eskaera egin dela Sasietatik, hogeita bat urte hauetan asko aurreratu dela. Horretan bat gatoz zuekin, hala da. Hondakinen kudeaketan inbertitutakoaz gain, herritarren kontzientzian lortutakoak bereziki ditugu guk gogoan. Baina, hala ere birziklapen tasa Beasainen %40ko ingurukoa da eta 2016rako Gipuzkoarako birziklapen tasa %60a igo behar dugu. Hori bait da zaborteziak eta aroztegiak itxi ahal izateko dugun bide

bakarra. Sasietako Mankomunitatean aldaketa sakonerako prestatu behar ditugu gure buruak. Ez, zabortegiaren kudeaketarekin jarraitzeko. O zabor politikan aurrera egin eta ahalik eta zabor gutxien sortzeko kulturari jauzi emateko eta zabortegiaren behararekin amaitzeko. Erronka hori posible dela pentsatzen dugu eta ez gara hondakinen bilketa sistemaren eztabaida politizatuegian eroriko. Uste dugu urteetan herritarren kontzientzia aurreratutakoa gai organikoaren bilketarekin jarraitu behar dela. Eginkizun horiek dira etorkizunean izango ditugun erronkak eta Sasietan ere Goierriko hondakinak birziklatzeko apustua, gure egin dugunez, bitartekoak, dedikazioa, lana eta konpromisoak biderkatu egin beharko ditugula. Norabide horretan doa teknikari baten kontratazioa. Zoritxarrez eta kasu honetan ere, lehen aldia da, Beasaingo udal gobernua ez dago Sasietan ordezkaturia eta aipatzen ari garen guztia, Beasaingo bi ordezkariak ez dute Udal egituretan konpartitu. Nahiago izan dute alderdi jarrerari eutsi euren ordezkariak era okerrean erabiliz. Okerrean zaldi sorrarena eginez, gaur udalbatza honetara ekarri den mozioa, arduragabekeri itzela dela esango dugu. Batetik, Beasain Sasietatik irteteko mehatxua egiten delako nolabaiteko nagusitasun politikoa erakutsi nahirik. Mehatxu politikoak egitea polita ez da, zilegi, agian, bai, baina EAJK eta mozioa babestuko duzuenok, jakin behar duzue, Beasain, Sasietatik ezin dela irten. Hurrengo egunetik kaosa izango genuelako. ¡Agian hori da norbaitek nahi duena!. Herriak kaosera eramanean, hauteskundera galdu zuena, beste era batean eskuratzeko. Baian, herritarrekin horrela jolastea lotsagabea da. Mozio hau alarma sortzeko asmoz egin dagoela garbi geratu zaigu. Unea behar bezala aukeratu delako, kanpainan gaude, eta arduraz jokatzeko deia uko egin diolako EAJK. Gauzak patxadaz hartu eta eztabaida mehatxurik sartu gabe jokatzeari ezezkia erantzun digutelako jeltzaleek. Hau esan eta gero, aipatuko dugu, Beasaingo Udala Sasietarekin batera lanean ari dela hondakinen bilketa eta birziklapenean jauzi berriak emateko. Guztion partaidetza bultzatuko dugu eta bide batez alderdi politiko, eragile, elkarte, merkataria, industria eta ikastetxeekin batera landu nahi dugun proposamen bat izango da aurki mahai gainean. Aurreratu dezakegu, gai hauen inguruan dugun adostasuna, elkargune bihurtu nahi dugula, bereizten gaituzten gaiak eta kanpainak politiko jakin batzuetan sartutako aldagaiak alboratzen ahaleginduko garela. Beraz, hemendik dei egiten dizuegu, hondakinen kudeaketaz irekiko dugun eztabaidan aurre-iritzirik gabe parte hartzeko, jarrera arduratsuekin eta gaia sakontasunean aztertuta aritzeko. Aldiz, gaiaren eztabaidan argudio bakarren bat eman gabe, zuzenean Sasietatik irteteko mehatxua egiteak harridura sortu digu. Udalaren ardura hainbeste urte eman dituen alderditik beasaindarrak kaosa eramatea jokaldi eskasa izango da.

Vamos a votar en contra de la moción y recalcamos nuestra decepción y sorpresa por el hecho de que tenemos dos representantes elegidos por este Pleno en Sasieta y en los quince y dieciseis meses que llevamos no han traído ni un triste folleto al Ayuntamiento de Beasain, y lo único que traen es esta moción amenazante.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beasaingo EAJk gogoia izatea Sasieta gidatzeko historikoki gidatu duen bezala, ba bueno....Sasieta sei lehendakari izan ditu Beasaingok, bi HBkoak izan dira, hiru EAKoak eta bat EAJkoa, hau da sei urteetatik behin eraman du. Horrelako idatziak egitekotan, ba gutxienez ondo informatu. Esaten duzue Zuzendaritza Batzordean, Beasainek ez duela ordezkartzarik. Aurreneko aldia dela, Beasaingo herriak zuzendaritza batzordean ez duela hango gobernuaren ordezkartzarik. Hori ere ez da horrela. Batzar Errektorea dago eta Batzar Errektore horretan Beasaingo ordezkaria dago. Batzar Errektore hori behin bakarrik ere juntatzen ez bada?. Pentsatu dezakezu horrelako gaiak aurrera ateratzeko Batzar Errektoreak ez badu balio, edukia kentzen bazaio, nik ordezkari bezala hona ezin dut ez da paper ziztrin bat ere ekarri, informaziorik ez dagoelako. Sasieta Batzordean pertsonen profilak eta hizkuntza irizpideak begiratzea besterik ez dago. Gaur egun Bilduk bigarren hizkuntza irizpidea eskatzea, aholkulari bati, nik ez du sinesten zuek horren alde zaudetenik. Horrek esan nahi du, pertsonaren bat hartuta dagoela. Hori guztia landuta eramaten unetik, zein eztabaida geratzen da?. Zein aukera dago gure iritzia emateko, nahiz eta jakin gutxiengoan gaudela. Iruditzen zaigu saldu nahi den egoskorke hori ez dagoela, hitz egiteko aukera bakar bat ere eman ez delako. Inposatutako zerbait bezala datorrelako. Hauteskundeak aipatzen dituzu, baina nik uste dut honek ez diola hauteskundeari erantzuten. Erantzuten dio, Bilduk egindako proposamenari. Hauteskunde hotsa pasatuko da, baina hemen azterketa bat egiteko dago, hau da, Beasaini zer dagokion, zer tokatzen den Sasieta utziko balu, luze joko du eta hauteskundeak baino askoz serioagoa da. Gure iritziz inposaketa bat da, beasaindarrek herri txikiei solidaritatez zaborren kudeaketa aurrera eman ahal izateko, laguntza ematea eta alderantziz herri txikien proposamenak izatea kontutan hartzen dena. Kurioa da, herri txikiek zabor poltsa jasotzeko pertsona bat mantendu ere ezin dezaketenean, agintzen digute bilketa nola egin behar den. Pertsona bat edo bi, atez atekoa, eta zergatik ez sukalde bakoitzean pertsona bat, zaborrak zatitzen?. Oraindik ere zabor gehiago bilduko genuke. Non dago muga?. Ulertzen dut iritzi ezberdinak daudela, baina iritzi horiek lantzeko eta zure zabor sistema hori lantzeko, liberatu bat egotea aurretik inoiz egon ez denean?, eta Sasieta teknikoek esanda, hemen egin diren aldaketak latzak izan direla?”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Nik uste dut ez didazula ondo ulertu. Nik eztabaida esaten nuenean esan nahi nuen, herrian eztabaida emateko eta ez etortzeko Plenora mozioarekin, baizik eta herriko egituretan edo batzordeetan eztabaidatu eta minimo batzuetara iristea saiatu. Nik Sasieta zertan ari zareten ez dakit, ezer ez zaielako iritsi.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ba pentsa zuri aleigatu ez bazaizu, guri zer ailegatu zaigun!.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guk esaten duguna da denon artean adostasun batera iritsi behar dugula. Bosgarren edukinontzia jarri behar bada,

ba jarri egin beharko da eta %40 birziklatu ordeztu %50eraino iristen bagara, hobe.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ez dakit Pleno hau konturatzen den, lehen onartutakoak zer suposatzen duen, tasaren igoerak esan nahi dut. Otsailean aho batez onartutako erabaki bat ez zaio kasurik ere egin eta ez zaio kasurik ere egin nahita. Bat ez datorrelako gobernuan dagoen talde batek dioenarekin. Aho batez onartutako puntu batetaz ari naiz.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Hemen hamazazpi zinegotzi gaude. Zenbaitek dakigu zertarako den “txip”a eta nola funtzionatzen duen?”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik bai.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Adibidez lehenago planteatu duzun hobarien gaia, askoz landuago ekarri behar da Plenora.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Noski, zazpi hilabete egon dira lantzeko eta berriro esango dut, aho batez onartutako erabaki bati bizkarra eman zaio.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Bere garaian hori eztabaidatu genuen.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Aho batez onartutako erabakiari buruz, lehendabizi esan zitzaigun Lazkaoko Alkatearekin hitz egin zela eta atzeratu egin zen, hurrengoan esan zitzaigun Sasietari esan zitzaiola jarraian zerbitzu batzordean esan zitzaigun Lazkaokin hitz egin zela eta Ordizik uzten dituenean, jarriko zela. Konpromiso eta konfiantzaz ari garenean esango didazu non gelditzen den hori.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Uste dut lehen Alkateak esan dizuela hurrengo astetik aurrera deituko zaizuela, Sasietarekin batzorde berezi bat monografikoa egiteko “txip”aren inguruan, baina ez etorri Plenora mozio batekin esanez Sasietatik aldendu egin behar zaretela esanez.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Oraindik inork ez du esan Sasietatik aldendu egin behar garenik. Guk esaten duguna da aztertzeko Sasietatik joateak ekonomikoki eta legalki zein eragin izan dezakeen. Sasietan esan genuen bezala, aztertzeko beasaindar bati zer kostatzen zaion bere zaborra kudeatzea eta komunitatekoa kudeatzea. Iruditzen zaigu galderak egiteko eskubidea dugula eta noski, galdera zerbaitegatik egiten da. Hemen inposatu dena inorekin hitzerdi bat egin gabe, BILDU izan da. BILDU izan da liberatu bat proposatzen duenean. Hitz egin, nahi duzuen guztia, baina mutur honetara iritsi beharrik ez dagoela, gu ere ados gaude. Kasu honetan eta beste kasu batzuetan ere pausoak eman behar dituen, Gobernu taldea da.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Informazioari buruz esan Aitor Aldasorok eta nik udaletxera informazioa ekarri nahi izan dugula, baina Azeari berak esan zigun, bera etorriko zela udaletxera zeuden proiektu guztiak azaltzera. Guk aurreko batzarrean galdetu genion nola zegoen gaia eta berak aitortu zigun oraindik ez zuela aukerarik izan etortzeko. Baita ere galdetu genuen zein batzordeetan aurkeztu daitekeen gaia. Hori da hemen esan beharrekoa, Sasieta Lehendakariak hartu duela konpromisoa berak hemen aurkezteko.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Nik badakit zerbitzuetako batzordean, M^a Mar-ek informazioa eskatu zuela eta erantzuna hori ez zela izan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Eskatu eta gerora eman zaigulako informazio hori. Zuen alderdia da informazioa garatzen duena eta gu bitartekariak. BILDUK sortzen du informazioa eta guri ukatu egiten zaigu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, NAHIA)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da EAJk aurkeztutako mozioa, Sasieta aholkularia kontratatzearen aurka.

7.- ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA. Unai Baztarrika jaunak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia.

Alkatea jaunak ezagutzera eman du, Unai Baztarrika jaunak zinegotzi karguari uko egiteko idatzia aurkeztu duela.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Ezagutzera eman dira, 2012ko uztailaren 6tik 2012ko urriaren 6ra bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

EZKIERDI PARKEA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ezkierdi parkean gure alderdiak komun publiko bat jartzea planteatu zuen eta aurrekontuetan aurreikusi zen. Guk

horrekin ez konforme eta, batzorde bat antolatu genuen eta prozesua martxan jarri genuen eta dokumentazio bat bidali genuen zerbitzu batzordera. Prozesu horretan hiru bilera egin ziren eta hiru bileretatik kokapen bat eta gauzak egiteko modu bat atera zen. Zerbitzuetara bidali genuen, hala esanda eta erantzunik ere ez genuen jaso. Uda aurretik egindako batzorde batean, esan zitzaigun BILDUK pentsatzen zuela beste toki egokiagoa zegoela, baina tokiarena ez zegoela itxita eta hurrengo batzorde batean erabakiko zen tokia zein izango zen. Hurrengo batzordea uda ondoren etorri zen eta esan zitzaigun beste parte-hartze prozesu bat martxan jarri zela eta parte-hartze prozesu horren ondorioz, erabaki zela tokia beste bat izatea. Adostasun gogoia badago, oposizioko talde batek egindako lanari bizkarra ematea...Azkenean ez da toki bat edo beste, behar bada hori da gutxienekoa, kontua da zein errespetu zor zaion, ez proposatu duen taldeari, baizik eta prozesu bat martxan jarri, jende bat mugitu eta gero horri kasurik ere ez egin eta beste toki bat proposatu. Muzin egiten zaio alderdi horrek proposatzen duenari eta horrek esan nahi du elkarlan minimo baterako borondaterik ez dagoela.

Jakin nahi dudana da zein parte-hartze prozesu eman den, zein jendek parte hartu duen eta zergatik erabaki hori hartu denean, ez den parte hartu duten auzoko jendearekin kontrastatu, adostasun batera iristeko.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Nik gaztelaniaz erantzungo dut euskaraz baino hobeto moldatzen naizelako. La bola se está haciendo grande con una cosa tan sencilla como la ubicación de un servicio público. En ese proceso de participación que mencionáis no fue invitado ni tan siquiera el técnico de servicios. Por lo que tengo entendido tampoco fue invitado el presidente de la Asociación de Vecinos de la Portería, ni sus allegados o cercanos en ejecución de sus decisiones. Por lo menos con los tres con los que yo estuve, ninguno había sido invitado, ni sabían que había existido ningún proceso de participación. Me puse en contacto con la persona que tiene la tienda justo enfrente de donde queréis ubicar el servicio público, y me dijo que era la primera noticia que tenía. Me acerque a los edificios y allí no había habido ninguna comunicación de proceso de participación ni nada que se le parezca. Después de haber leído en el Diario Vasco, la ubicación decidida por el proceso de participación del PNV con sus técnicos, sin haber contado en absoluto con el técnico municipal, se pusieron en contacto conmigo bastantes vecinos de la portería diciéndome que a ver que era aquello, porque nadie sabía nada. Me está sorprendiendo el tema porque me parece que se está saliendo de toda normalidad. El lugar de ubicación de un baño público en medio de un parque, que por lo que tengo entendido, tiene mucho tránsito y ponerlo en medio bajo los árboles, sin considerar que es un paseo y ubicarlo cinco metros más cercano al frontón, que es donde se plantea desde la comisión de servicios, contrastado con estas personas a las que estoy nombrando, que sorpresivamente no estaban incluidos en ese proceso de participación, pensamos que es el lugar adecuado, más cuando hay que tener en cuenta la ausencia de barreras arquitectónicas. Ahí sería a ras de suelo,

cosa que en medio del parque tendría que subir un escalón porque sino habría que romper todo el paseo. Creo que sobran las palabras. Es absurdo el esfuerzo que se le está dedicando y no lo entiendo. A mi entender el lugar adecuado es en donde se ha dicho varias veces en la comisión. Creo que la ubicación de un baño público no requiere más esfuerzo. Hay otras cosas que merecerían mucho más. Todo se ha llevado de una forma muy incómoda para los mimos vecinos, que son los que me han llamado. El proceso de participación que yo he realizado, he paseado por las calles, he preguntado a los vecinos, ese es el proceso de participación, no escrito, pero real. Eso es todo.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “No es un proceso de participación lo que has hecho, sino que es ir allá, consultar con la gente, y has decidido que era un sitio mejor o peor. Yo estoy contigo en que la ubicación del baño es lo de menos. La idoneidad de las personas que participan en un proceso es subjetiva. Tú puedes tener acceso a cierta gente o hay gente que te puede dar la espalda y no tomar parte. De eso, la comisión de participación, por desgracia, sabe mucho, ¡lo que cuesta juntar a la gente para que se moje!, que no es ir allá, pasear y tener tú opinión. El técnico municipal claro que no fue, pero fueron arquitectos, porque creíamos que era gente que podría aportar más cosas para lo que pretendíamos. Un proceso participativo, al igual que se ha hecho en Igartza, consta por lo menos de tres reuniones. Lo de la bola no es por la ubicación, yo creo que en este caso es lo de menos, y por eso lo uno más a lo que decía Aitor antes, desadostasunen eztabaida eta eztabaida hori eman behar da zuk bezala pentsatzen ez duen pertsonarekin. Tokia da gutxienekoa. Erabat ados nago eta komunetak dedikazioa ez duela eskatzen?, pues a nuestro modo de ver si. La importancia que se le quiera dar. Dedicación toda la que se pueda para hacer las cosas lo mejor posible. Yo creo que el sitio que planteó resultado del proceso participativo, por lo menos, hacer caso. Si se va allá, se habla con cuatro personas y se decide que la ubicación es otra, no sé...es la primera noticia que tengo de las dudas que hay por parte de Bildu de que hayamos llevado adelante un proceso participativo, porque a la documentación que mandé yo, ni se me contestó. Toda la documentación se mandó a Jose Ignacio en PDF. Dejar entrever que no hemos hecho un proceso participativo, me parece grave y por el contrario se dice desde servicios que se ha llevado a cabo un proceso participativo y ha sido que la presidenta de la comisión de servicios ha ido allá, ha hablado con cuatro y han decidido que el sitio es otro. Yo creo que por lo menos, se tenía que haber contado con nosotros.”

Alkate jaunak (BILDU): “Y con nosotros.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si pero, ¿sois BILDU eh Koldo?. Entiendo que si el PNV ha hecho un proceso participativo y la resultante de ese proceso se plasma en servicios que es donde gobierna BILDU, entiendo que por lo menos en servicios se debería de dar pié a hablar de todo eso y que cada uno

opinara. No creo que el partido socialista, el partido popular y NAHIA, no sepan nada de esto, porque en la comisión de servicios se trató.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “Quisiera preguntar al PNV que valor le da a una comisión de vecinos, porque creo que de los barrios que tenemos en Beasain, será la única organización de vecinos que funciona como tal.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Al partido socialista lo que sorprende es que un tema que se le ha negado durante doce o catorce años, ahora quien lo negaba haga bandera de unos servicios públicos. Esto es lo que verdaderamente nos sorprende. Me parece muy bien, pero de verdad es un poco tarde.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Alfonso, una mentira dicha quinientas veces no pasa a ser verdad, ¡gracias a Dios!. Es el cuarto baño público que se plantea por parte del PNV. Estar en contra de los servicios públicos, bueno...., pero yo creo que anteriormente también te respondí a eso. Yo creo que los hechos demuestran lo que se ha hecho.”

ERREKARTE

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bere garaian Errekartei buruz txosten bat eskatzeko Josetxo Zufiaurrei eskatu genuen. Osoko Bilkura honek onartu zuen txosten hori eskatzea, bere garaian zure ahotan jarri zuelako aldizkari batek, zuk onartua, hamabost eta hamazazpigarren mendeko baserriak zirela. Nik eskaera egin nuen txosten hori eskatzeko eta jakin nahi nuke zertan den.”

Alkate jaunak (BILDU): “Eskaera hori egin zenuenean aurretik zuk txosten hori bazekizun, pertsona horrek eginda zuri bideratu zizulako, orain dela bi urte inguru oker ez banago eta eskatu zitzaion, jaso genuen eta zuri emandako txosten berdina jaso dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beraz, ez dira hamabost eta hamazazpigarren mendekoak.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ez.”

USURBE ANTZOKIAREN LANGILEA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Jakinda langile horrek jasan izan behar duen egoera, pentsatzen dut inork ez dugula gure azalean jasan nahi, prozesua nola joan den jakin nahi dugu eta gaur egun gai hori nola dagoen.”

Unai Baztarrika jaunak: “Legearen arabera, lizitazioa egin ondoren, enpresari dagokio langileak subrogatzea. Lizitazioa egin zen garaian hiru langile zeuden eta subrogazio hori enpresaren ardura da eta ez udalarena.

Aurreneko egunetik enpresak, Udalaren bitartekaritzarekin egindako saiakerak langile horien subrogazioa aurrera eramateko izan dira. Kontua da subrogazioa aurrera eramateko ere objetiboki Usurbe antzokiaren ustiapeneko baldintzak aldatu egin direla. Denok dakigu 1999tik urtean hiru hilabete zinea itxita dagoela, zine emanaldietarako eta hori ikusita eta enpresak eta Udalak bitartekari moduan egindako esfortzuak, garbi zegoena zen Usurbe antzokia zinea emanaz jarraitu behar bagenuen, kontratu horiek egungo egoerara egokitu egin behar zirela. Hori kontutan izanda, hiru langiletik bi onartu zuten enpresak egindako proposamena. Langile horrek ezezkoa esan zion enpresaren proposamenari eta bere hutsunea beste batek betetzen du.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Eta neska horrek berak nahita, utzi du bere lana?”

Unai Baztarrika jaunak: “Nik dakidana bera dela uko egin duena. Hori denon onartu beharko dugu. Hemen ez da inolako despidorik egon. Norbaitek horrela ikusi nahi badu, oker dabil.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ez dut esan despidorik egon denik. Nik bakarrik galdetu dut egoera nola dagoen eta nola joan den prozesua.”

Unai Baztarrika jaunak: “Nik uste dut erantzun dudala. Dudarik badago...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Erantzunak ez du zalantzarik sortzen. Ez da despidorik egon.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Egia esan erabat harritzen naiz zure ahotik ateratzen denean, zegoen kontratuarekiko aldaketa proposatu zela eta hori ez dela onartu. Denok jakin izan dugu lehiaketa egin ondoren, langile honek zein egoera zuen eta langile hau lehen zinea kudeatzen zuen enpresan finko zegoen. Kontratua hementxe daukat. Berari proposatu zaiona da, finko egon ordez, “fijo discontinuo”. Horrek beste ondorio batzuk dakar eta da, hainbeste urtetan lortutako eskubideak bertan behera geratzea. Niri harridura sortzen dit justifikatzea egoera aldatu egin dela eta horregatik beste proposamen bat egin zaiola. Guk jakin izan duguna da berak eskatzen duena dela bere egoera mantentzea.

Aldi berean esan, Udalak enpresari langileak subrogatzeko betebeharra ezarri zion eta ez da bete eta ikusita BILDUK Legebiltzarretarako hauteskudetan esaten duenean “garantizará y defenderá los derechos laborales”, jakin nahi dut kasu honetan nola defendatu diren langile honen eskubideak.

Nik egiten dudan irakurketa da, seguraski Udaletik hanka-sartze bat egon dela. Hau gertatu aurretik agian denok eseri behar ginen aztertzeke nola

konpondu zitekeen pleguetan azaltzen zen betebeharra, izan den ondorioz gertatu ez zedin.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guk kargua hartu genuenean, Kulturako batzordean Gurutze Sukiarekin elkartu ginen eta komentatu zigun ordu-arteko zineko kudeaketa ez zela egokia izan. Urte batzuetan esleituta egon zen zineko kudeaketa, baina urte batzuk igaro ondoren, esleipena bertan behera geratu zen eta enpresa horrekin inolako loturatik egon gabe, ordu arte egondako kontratistak lanean jarraitu zuen eta Udalari fakturatu egiten zion. Enpresa horrek langileak zituen eta Udalak kontratistak aurkeztutako faktura ordaintzen zuen. Gu iritsi ginenean ikusi genuen egoera irregular hori ezin zela mantendu eta erregularizatu egin nahi izan dugu. Ahaztu zait esatea aurreko Udalak erabaki zuela, zineko eskaintza urte osokoa izan beharrean hilabete batzuetan ixtea. Konturatzen gara, nahiz eta zerbitzu hori murriztua egon, zerbitzua berdin ordaintzen jarraitzen dela. Guk hori ezin dugu onartu eta baldintza plegua prestatzen da zinearen kudeaketa esleitzeko. Hori Gobernu Batzordean, aho batez onartu zen eta eskaintzak aurkezteko epean enpresa bakarra aurkeztu zen eta lizitazio prezioa baxuegia zelako, enpresa hori atzera botatzen da. Gaia berriro aztertzen da eta beste proposamen berri bat eramaten da Kultura Batzordera, ondoren Gobernu Batzordean onartzen dena. Enpresa berdina aurkezten da eta oraingoan proposatzen dena onartu egiten du eta esleipena bere alde egiten da kontratua, irailaren 1etik ekainaren 30era bitarte gauzatuz. Baldintza pleguan jartzen du, nahiz eta hori jartzea Udala behartuta ez egon, hiru langile subrogatu behar dituela eta horrela egiten du, baina noski bere mugarekin.

Beraz, nire galdera da, zuek zer ari zarete eskatzen?. Guk diru publikoarekin langile bati lana ez egiteagatik ordaintzea edo guk enpresari zerbitzu bat ez emateagatik ordaintzea?”

Josi Insausti jaunak (H1): “Guk bakar bakarrik eskatzen duguna eta nik pertsonalki, pertsona honen eskubideak mantentzea. Berak duen kontratu mota mantentzea.

Egia da aho batez onartu zela plegua nahiz esleipena egitea, baina beste bi gauza hauek esan behar dizkizut:

- Puridadean enpresa horrek ere ez luke esleipena eramango, baina hor beste balorazio bat egin genuen, hau da, interes orokorra, arriskua zegoela ikusten genuelako.
- Pleguak onartu ziren ekarri zitzaigun informazioarekin. Ondoren jakin izan dugu pertsona horrek zein kontratu mota zuen. Ez dit balio esateak, informazio hori udaletxean zegoela zeren eta informazio hori pasatu behar du kudeatzen duenak eta guk plegua onartu genuen, egia da, baina hor bazegoen pertsona bat urte guztiko kontratua zuena eta hori mahai gainean jarri behar zen denon artean aztertu

ahal izateko, baina ez, guri ekarri zitzaigun plegua eta pentsatzen genuen denak egoera berdinean zeudela.

Beraz, eskatzen duguna da bera lan eskubideak mantentzea eta proposatu zaion kontratu motarekin ez dira mantentzen.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Esan nahi dudana da jakina dela legegintzaldi hau asterako jakitun ginela egoera hori konpondu behar zela baina konponbidean ez dugula parterik hartu eta pertsonen horren eskubideak urratzen hasi badira, orain hasi direla eta ez aurretik. Aurretik gutxienez, bere eskubideak mantentzen ziren langile bezala, nahiz eta jakin egoera horrek hobetze edo buelta bat behar zuela. Jakitun ginen eta gu ere hasi ginen aztertzen, baina hortik egin denera...distantzi bat dago eta gauzak nola egiten diren...kudeatzen dituenak azaldu behar ditu eta ez aurretik kudeatu zuenaren bizkar gainean bota.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Guk pentsatzen dugu inoren eskubideak ez direla urratu, baina pertsona horrek alderantzizkoa pentsatzen badu, joan dadila tokatzen den tokia bere eskubideak defendatzeko eta horren ondorioz, Udalari tokatzen bazaio zerbait asumitzea, asumituko dugu, baina guk pentsatzen dugu behar den moduan jokatu dugula. Nik eskatuko nuke gai honi buelta gehiegi ez ematea, jendea dagoelako tartean.

Alkate jaunak (BILDU): “Bukatzeko esan, nire ustetan Unaiak gai hau ondo gidatu duela eta berriro egin behar izango bagenu, berdin jokatuko genuke.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Zuek esan duzue guztia. Gauza da pertsona bat kalean dagoela.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, gaueko bederatzia laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.